

TXIKI-TXOKO AKADEMIA FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektuaren arrakasta lortzeko, hainbat funtsezko jarduera eta prozesu behar dira.

Hasieran, diru-sarrerak eta gastuak ondo kalkulatu eta planifikatu behar ditugu. Horrez gain, diru-laguntzak edo beste iturri ekonomikoak bilatzea lagungarria izango da zerbitzuak eskaintzeko. Erabaki garrantzitsuak hala nola inbertsioak eta sarrerak, txiki txoko akademiaren irakasle taldeak hartuko ditu, modu egokian kudeatzeko. Gure helburuak, helburu ekonomikoak eta zerbitzuak nola antolatuko ditugun definituko dugu.

Espazioaren diseinua haurren beharretara egokitu behar da, haien psikomotrizitatea eta sentsorialtasuna garatzeko gelak egongo dira. Haurren segurtasuna eta ongizatea bermatuko da. Espazioa hurrek ikasteko eta jolasteko behar dituzten baldintzak beteko ditu. Hainbat jostailu egongo dira, ia guztiak egurrezkoak, gutxiago kontaminatzeko. Liburuak egongo dira, adin ezberdinaetarako, eta guztiek dute ikaskuntza bat historiaren atzetik. Bezte umeekin egongo dira, haiekin erlazionatzen ikasteko txikiak direnetik. Umeak konturatu barik asko egongo dira iksaten.



Psikomotrizitatean eta sentsorialtasunean lan egiteko material espezializatua erosi behar da, ikasleek modu praktikoan ikasteko. Kanpoko enpresek materiala hornitu dezakete, baina materialaren erabilera ikastaroen plangintzaren parte izango dira, barneko taldeak erabakiko duelarik zein material erabiliko den ikasleen beharretara eta adinera egokituta.



Gurasoen eta haurren beharrak ezagutzea oso garrantzitsua da. Horrela, ikastaroak eta zerbitzuak hobeto egokitu ahal izango dira eta ikasleen garapenerako beharrezkoak diren arloak landu ahal izango dira. Batzutan hurrekin hitz egingo dugu haien iritzia jakiteko eta hobetzeko. Bezzeroen beharren analisia egiteko inkestak, feedback saioak edo elkarrizketak egin behar dira.

Komunikazioa langileen artean funtsezkoa da, bai hurrekin eta gurasoekin lan egiteko, bai taldean elkarrekin jarduteko. Langilak elkarrekin koordinatuta egongo gara, ikasleen egoerari eta beharrei erantzuteko. Informazioa partekatu eta erabakiak elkarrekin hartu beharko ditugu proiektuaren arrakasta lortzeko.

Horrela, funtsezko jarduera hauek ondo kudeatuta, proiektuak arrakasta izateko aukera izango du, eta etengabe hobetzeko bidea izango du. Azken finean, guzti hauek elkarrekin bat egiten badute, proiektuak arrakasta lortuko du, beti ere ikasleen eta gurasoen beharrei erantzunez eta hobetzen jarraitzeko konpromisoarekin.